

Zuhaitz beteranoen balioestea eta kudeaketa

VETree proiektuan garatutako prestakuntza materialaren aurrerapena




Zer da zuhaitz beterano bat?

Zuhaitz beterano bat zer den galdetuko bagenie 10 laguni, beharbada 10 definizio desberdin lortuko genituzke, eta horietan guztietan egiaren zati bat izanen litzateke. Zuhaitz beterano baten definizioa ez da bakarra. Jende askok zuhaitzaren adin kronologikoari begiratzen dio bereziki, baina ezinezkoa da adin muga zehatz bat ezartzea, espezieetik espeziera aldaketa franko ematen direlako: 150 urteko urkia zaharra da, baina adin bereko haritza gaztea da oraindik. Adinari begira egon beharrean, hobe da zuhaitzaren ezaugarriak behatzea: hutsarteak, zuloak, usteltzen ari den zura edo itxura korapilatsua eta makurra. Zuhaitzaren aurrekari historikoak eta kulturalak beste seinale bat izan daitezke.

Aipatu berri dugun "adinaren definizioarekin" oso loturik dago "bizi-aroaren definizioa". Jende gehiena ohitua dago zuhaitz gaztea eta zuhaitz heldua esapideetara. Baina askotan ahazten zaigu zuhaitzaren bizitza ez dela bat-batean amaitzen goieneko tamainara iristen denean. Zuhaitza poliki zahartzen da, indar pixka bat galtzen du, hainbat adar kentzen ditu eta tamaina murrizten du. Egia esatera, zahartzarua edo heldutasunaren ondorengo aro hau, zuhaitzaren bizitzaren arorik luzeena izan daiteke, hau erabat zehaztea zaila bada ere.

Baina zuhaitz batek ez du izan behar oso zaharra zuhaitz beterano baten ezaugarriak erakusteko. Ingurumenaren eraginez edo kalte naturalen edo kudeaketa aktiboaren eraginez, zuhaitz batek zahartzarori dagozkion ezaugarriak erakusten has daiteke askoz ere gazteagoa denean. Zuhaitz horiek ez dira zaharrak, baina beteranoak dira zalantzarik gabe. Hau da, beraz, egun zabalduena dagoen definizioa: zuhaitz beteranoa da, haren adin kronologikoa alde batera utzita, zuhaitz zaharren ezaugarri nabarmenak dituena. "Zuhaitz zaharra" esapidea urte askotako zuhaitzei dagokie zehatz-mehatz (Lonsdale, 2014).



Heldutasun-aroa zuhaitz baten bizi-arorik luzeena izan daiteke (Irudia: Read, 2000. NevilleFayren jatorrizkoaren moldaketa)

Zuhaitz zahar baten ezaugarriak honako hauek izan daitezke: usteltzen ari den zura enborrean, adarretan edo sustraietan; onddoen gorputz fruitu-emaileak, zuloak eta adaburuaren murrizketa naturala, zeina emeki-emeki txikiagoa egiten den. Ezaugarri hauek ez dute esan nahi zuhaitza hil urren dagoenik. Izan ere, zuhaitz beterano batek bizirik eta osasuntsu eman ditzake hamarkadak eta are mendeak ere; eta hiltzen ari diren zuhaitz beteranoek oraindik hainbat hamarkadatan iraun dezakete.

Gainera, zuhaitzak interesgarriak izan daitezke haien esanahi historikoagatik, ez bakarrik haien adinagatik. Iraganeko paisaiaren kudeaketaren berri ematen digute, eta loturik egon daitezke pertsona edo gertaera zehatz batekin, edota gizakiok diseinatutako paisaia baten parte izan daitezke.



Haritz motz hau eta harrizko gurutzeta loturik daude. Ondarezko zuhaitza da, eta aldi berean beteranoa. Pasealekuek ere ondarezko balioa ere izan dezakete (Argazkiak: Tom Joye).

Ikas ezazu gisa honetako zuhaitz ordezkaezinak balioesten eta estimatzen haien aurrean zaudenean!




Zergatik dira garrantzitsuak zuhaitz beteranoak?

Zuhaitz beteranoek oso balio ekologiko, historiko eta paisaiako handia dute.

Arestian aipatutako zuhaitz beteranoen ezaugarriek hamaika (mikro)habitat eskaintzen dizkiete faunari eta landarediari. Hegaztiak eta saguzarrik hustutako enborretan eta adarretan bizi dira, liken espezie batzuk zenbait zuhaitz zaharren azal zimurtsuan bizi daitezke bakarrik, zenbait onddo arraroren espezie batzuk trebatu dira zuhaitz zaharren zurgiharra emeki usteltzen, eta oso espezializatutako intsektu-larba batzuek beharrezkoa dute elikatze deskonposizio egoera oso aurreratuan dagoen zura. Zuhaitz beteranoak bakanak dira paisaian. Honek esan nahi du zuhaitz horietan bizi eta espezializatu diren espezieak ere oso bakanak direla. Horregatik babestuak daude gaur egun zuhaitz beteranoen paisaia batzuk eta zuhaitz horiekin elkartutako espezieak, bai estatu mailan zein Europa mailan Natura 2000 zuzentarauaren bidez.

Hala ere inkongruentziak ematen dira zuzentaraua hainbat herrialdetan ezartzerakoan.

Agerikoa da zuhaitz beteranoak ez direla bakarrik aintzat hartu behar erreserba naturaletan edo Natura 2000 sareko guneeetan. Parkeetako, lorategietako eta hiriguneetako zuhaitz beteranoek ere harrera bera merezi dute, faunarentzako babesleku garrantzitsuak direlako.



Zuhaitz beteranoek hamaika mikrohabitat eskaintzen dizkiete faunari eta landarediari. Aurkitzeko gauza zara? (Irudia: Read, 2000).

Zuhaitz beteranoetan bizi ohi diren kakalaridoak ikusteko gauza zara? Batzuk aurkitzea zailagoa da (Ezkerrean: Rhagium sycophanta, irudia: Ola Bengtsson; eskuinean: Rosalia alpina, irudia: Santiago Pagola).



Zuhaitz beterano askok duten balio ekologikoez gain, balio historiko eta kulturala ere badute. Zuhaitz batzuk zaharrak izatera iritsi dira gizakion kudeaketa aktiboarengatik. Adibidez, gure arbasoek zuhaitz asko lepatzen zituzten zura, egurra eta bazka eskuratzeko eta zuhaitz horien menpe zeuden eguneroko beharrak asetzeko. Zuhaitz zahar eta beteranoetan nabari da oraindik iraganeko kudeaketa hura, eta horregatik erakusten ahal digute nola bizi eta lan egiten zuten gure arbasoek. Beste zuhaitz batzuk gertaera, pertsona edo toki garrantzitsu batekin lotzen ditugu. Europa osoan landatu izan dira zuhaitzak une bereziak gogoratzeko: ezkontza, jaiotza edo iraultza baten ondorengo erregetza berria. Halaber, zuhaitzak alorren arteko mugarritzat erabiltzen ziren.

Definizioz, zuhaitz beterano bat ordezkatzeko denbora luzea beharko denez, ezinbestekoa da egokiro kudeatzea egun bizirik dauden zuhaitz beteranoak, eta haien bizitza luzatzea, gutxienez ordezkatzeko gai izanen den zuhaitzen belaunaldi berri bat prest izan arte.



Xarma gazte motz hau bi alorren arteko mugarria da. Denborarekin zuhaitz beterano izateko aukerak ditu (Argazkia: Tom Joye).


Non aurkituko dituzte zuhaitz beteranoak?

Zuhaitz beteranoak dituen larrea. Breite Erreserba Naturala, Errumania (argazkia: Luminita Holban).

Zuhaitz beteranoak Europa osoan aurki daitezke. Erresuma Batua, Suedia, Espainia bezalako herrialdeetako hainbat eskualdetan zuhaitz zaharren eta beteranoen dentsitate handiak ematen dira. Paisaia guztietan aurki daitezke: parkeetan, hesietan, larreetan eta are hiriguneetan ere. Europako beste herrialde batzuetan bakanagoak dira, bakartuak parke zahar bateko azken zokoan. Baina are zuhaitz beteranoak bakanak diren alderdian ere, trebatutako begiak antzeman ditzake horietako ale eder batzuk.

Zuhaitz beteranoak dituen paisaia berezi batek gure atentzio berezia eskatzen du: zuhaitzak dituzten larreak. Paisaia hauetan zuhaitzak hazten dira gune ireki batean egiten luketen bezala, ebakitzen diren edo aziendek modu estentsiboan bazkatzen dituzten belardiek inguratutik. Garai bateko Europan oso zabalduta zeuden paisaien oso antzekoak dira (Vera, 2000). Eskualde batzuetan zuhaitz batzuk lepatu egiten ziren, inausi egiten ziren hostoa eta egurra eskuratzeko. Hau bezalako paisaia motek, non zuhaitzak gune irekietan zahartzen diren, non landaredia eta fauna haiekin batera eboluzionatzen duten, sekulako balio dute bioaniztasunarentzat. Era berean, garrantzia kultural handikoak izaten dira. Horregatik guztiarengatik, paisaia zahar hauen azken aztarnak kontserbatu egin behar dira.

Ancient Tree Hunt ekimenari esker (zuhaitz zaharren ehiza) 100.000 zuhaitz beterano inbentariatu eta kartografiatu dira Erresuma Batuan (hemendik hartua: <http://www.ancient-tree-hunt.org.uk/>)



Herrialde eta eskualde askotan zuhaitz beteranoak datu-baseetan inbentariatu eta erregistratu dira, bestelako zuhaitzekin batera (zuhaitz txapelak - eskualde jakin bateko zuhaitz handiena-, zuhaitz nabarmenak, ondareko zuhaitzak...) Gisa honetako gero eta datu-base gehiago daude on-line eta, beraz, gure monumentu natural horietako bat bisitatu nahi baduzu, merezi du zure eskualdeko zuhaitz beteranoen datu-base bat bilatzen saiatzea. Ancient Tree Hunt datu-basea adibide bikaina da: Erresuma Batuko 100.000 zuhaitz erregistraturik daude une honetan. Baita Suediako Tradportalen.se webgunea ere, non 300.000 zuhaitzen berri ematen den.

Zergatik da beharrezkoa VETree proiektua?

Azken hamarkadetan, azken mendeetan esanenez, zuhaitz beterrano asko galdu ditugu Europa osoan. Lehenbizi, garapen ekonomikoak eta nekazaritza- eta baso-garapenak lurzorua erabileraren aldaketa drastikoa ekarri dute. Bigarren, herrietan milioika zuhaitz motz beterrano ez dira gehiago moztzen edo lepatzen hostoa eta egurra eskuratzeko, gisa honetako kudeaketa aktiboa mende askotan garatu eta gero. Landa-guneetako, eta ondoko paisaietako, zuhaitz beterranoak ez dira jada kudeatzen tradiziozko eran, eta zuhaitz motzak baso sekundarioetan murgilduta geratu dira, edo zuzenean kendu dira nekazaritza-eraginkortasunaren izenean. Prozesu hau oraindik gertatzen ari da (maiz EBren nekazaritza-dirulaguntzekin) Europako hainbat herrialde zein eskualdeetan, hala nola Espainian eta Errumanian.

Hiriguneetan, berriz, zuhaitz beterranoak kentzen edo kaltetzen dira seguritatearen aitzakiarekin. Gainera, arriskuaren zatirik handiena bioaniztasunerako balio handiena duten zuhaitz beterranoen elementuetan gertatzen da: zuloak, adar horizontal luzeak, usteltzen ari den zura, onddoen agerpena... Zuhaitzetan egiten diren arrisku-ebaluazio estandarrek ez dute kontuan hartzen zuhaitz beterranoen kudeaketaren erronka zehatzak; normalean ez da berariaz egiten den zerbait, baizik eta ezagutza faltagatik gertatzen dena.



VETree proiektua hitz gutxitan

VETree akronimo bat da: 'Vocational Education and Training on Veteran Trees' (Zuhaitz beterranoen buruzko profesionalentzako hezkuntza eta prestakuntza). Hori garatzeko bildu diren 5 elkarrek abian paratu duten europar proiektua da, 2012ko azarotik eta 2014ko urrira arte. Helburu nagusia izan da orain arte sorturik zegoen zuhaitz beterranoen kudeaketari eta kontserbazioari buruzko ezagutza guztia biltzea, eta hortik abiatu Oinarrizko Prestakuntzarako ikastaro bat sortzea arbolazaintzat, basozaintzat, hiri zuhaitzen kudeatzaileentzat, paisaia-arkitektoentzat, biologoentzat... Prestakuntzarako materiala sakon probatu da eta hainbat ikastaro garatu dira prestatzaileak prestatzeko, gerora horiek ere oinarrizko ikastaroa emateko gauza izan daitezten. Ikastaro pilotuetan 45 VETree prestatzaile prestatu dira. Haiak zabalduko dute ikastaroa beraien erakunde eta herrialdeetan barna, independenteki oinarrizko ikastaroak antolatuz. Prestakuntzarako materiala, bideoak eta e-learning oinarrizko lanabesak VETreeren webgunean daude eskura.



Informazio faltagatik ziurrenik, zuhaitz beterrano honen erdia alferrik moztu zen zuhaitza seguruagoa izan zedin. (argazkia: Mikel Belasko).

Prozesu horien guztien ondorioz Europa osoko zuhaitz beterranoen ekosistemen galera drastikoa gertatu da. Horrekin batera bioaniztasunaren galera eman da eta ahaztu egin dira zuhaitz hauek egokiro kudeatzeko trebetasunen eta tekniken ezagutza ere.

VETree proiektuaren helburua da zuhaitz beterranoen kudeaketarako praktika hoberenak hedatzea, horretarako jendea prestatuz eta elkar lotuz Europa osoan barna. Askoz ere esfortzu handiagoa beharrezkoa da, maila politikoan batez ere. VETree proiektuari esker orain badaude kalitatezko prestakuntza-materialak 6 hizkuntzatan, doaneakoak zuhaitz beterranoen kudeaketari buruz ikasi edo irakatsi nahi duen ororentzat.



Gure zuhaitz beterranoak gure arbasoek utzi ziguten ondarea dira, eta guk gure ondorengoei utzi beharko geniekeena. Hau lortzeko, baina, gisa honetako ekintza gehiago aurrera atera behar dira. VETree proiektuak prestakuntza eta gaiari buruzko ezagutza paratu du arreta, ulergarriagoa izan zedin bai zuhaitz beterranoek betetzen duten paper ekologikoa eta baita haien kudeaketa egokia ere. Hurrengo urratsa zuhaitz beterranoei dagozkien gure politikak edo ekintza-lerroak indartzea izanen da.

Zuhaitz beterranoekin engaiaturik dauden guztiei dei egiten diegu hau lortzeko:

- Zuhaitz beterranoei dagozkien politikak hobetzea alderdi hauetan**
 - Toki-, estatu- edo Europa mailan babes-estatus bat ematea zuhaitz beterrano handiei eta zuhaitz beterranoen paisaiei.
 - Nekazaritza-, basogintza- eta arbolazaintza-politikak indartzea (EBren mailan ahal bada) zuhaitz beterranoen kudeaketan praktika hoberenak sustatzeko.
 - Zuhaitz beterranoen legezko babes hobea bermatzea, Europa mailan hau ere. Natura 2000 deitura zabalduz egin liteke, zuhaitz beterranoak dituzten paisaia gehiago sar daitezten (Eskandinavian bezala).
 - Zuhaitz beterranoen jabeen finantzarioki lagungarriak izan litezkeen mekanismoak ematea zuhaitzak kudea ditzaten.
- Zuhaitzen inbentarioan egindako esfortzuak handitzea**
 - Kokatu eta katalogatu. Jakin behar dugu nola eta non dauden zuhaitz zaharrak horiek babesteko.
- Kudeaketaren hobekuntza sustatzea**
 - Zuhaitz zaharrak kudeatu praktika hoberenen arabera, haien bizitza luzatuz zuhaitz zaharren belaunaldi berri bat ordezkatzeko prest izan arte.

Zuhaitz beterranoen etorkizuna ziurtatzeko beharra.

- Hil diren eta hiltzen ari diren zuhaitzak bertan mantentzea ahalik eta gehien.
- Zuhaitz zaharren kudeaketan honako hauek kontua hartzea: onddoak, likenak, goroldioak, intsektuak eta zuhaitzekin elkarturik dauden beste organismoak.
- Zuhaitz zaharren kudeaketarako praktika hoberenak sustatzea, VETreeren materialen eta ikastaroen sustapenaren bidez.

Hiriguneetako zuhaitzak babestea

- Hiriguneetako zuhaitz beterranoetan arreta berezia paratzea, bereziki garrantzen ari diren alderdietan eta eraikitzen ari diren horietan.
- Zuhaitzetan arriskua ebaluatzeko lanabesak garatzea, eta bereziki zuhaitz beterranoei espresuki dagozkienak.

Etorkizunean pentsatzea

- Zuhaitz gazte gehiago landatzea gerora, oraingo zuhaitz beterranoak hiltzen direnean, ordezkoak izan ditzagun funtzio horretan, eta bermatzea toki nahikoa izanen dutela funtzio hori bete dezaten.
- Zuhaitz beterranoak dauden guneak indartzea, zuhaitzak dituzten larreak sortuz eta aske haziko diren zuhaitz gazteak sartuz, etorkizuneko zuhaitz zaharrak izanen direnak.
- Interes handieneko tokiak luraren erabilera intentsibotik babestea.

Ezagutza hobetzea

- Zuhaitz beterranoen kudeaketari eta haien bioaniztasunari buruzko ikerketa sustatzea.
- Norbera eta besteak ere gaitzea zuhaitz beterranoen kudeaketan, batez ere arbolazaintzei eta zuhaitzen kudeatzaileei dago kienez. Kontuan hartu behar da zuhaitz beterranoen kudeaketa eta zuhaitz gazteagoen kudeaketa estandarra oso bestelakoak direla.

Non aurki dezaket prestakuntzarako materiala?



Prestakuntza materiala zabal probatu da bazkideen herrialdeetan ikastaro pilotuen bidez.

VETree proiektuaren bidez material batzuk prestatu dira egun bat irauten duen zuhaitz beterranoen buruzko oinarrizko ikastaro baterako. Prestakuntza-materialan badira aurkezpenak, ariketak, talde-lanak, kasu praktikoak, basoan egiteko ariketak eta aditu batek idatzitako esku-liburu bat. Aipatu material osoa ikastaro pilotuetan probatu da bazkideen herrialde guztietan eta eskura dago 6 hizkuntzatan: euskara, espainiera, ingelesa, suediera, nederlandera eta errumaniera.

Hedatze lana eraginkorragoa izan zedin helburutzat hartu ziren teknikari prestakuntzaileak, eta ez oinarrizko ikastaroen azken erabiltzaileak. Hiru egun irau-

ten dituen "prestakuntzaileentzako" ikastaroan balizko prestakuntzaileari material zehatza eman zaio, gerora haren ezagutza erakunde kideekin konpartitzeko aukera izan zezan eta aipatu erakunde gai izan zedin oinarrizko ikastaroak antolatzeko.

Oinarrizko ikastarorako prestakuntzarako materiala eskura izanen da prestakuntzaileentzat helbide honetan: (www.vetree.eu).

Gainera 8 bideo egin dira gelako prestakuntza sendoagoa izan zedin. Hona hemen gaiak:

- Zuhaitz beterrano baten adaburua murrizteko teknikak
- Zuhaitz zaharren inguruko lehiakideen dentsitatea beharrez
- Zuhaitz beterranoaren ondoko luraren garrantzia
- Arriskuaren kudeaketa zentzu komunarekin
- Zur hila habitat bezala sortzea
- Fruta-arbola beterranoen kudeaketa
- Oraindik erregulariki moztzen diren zuhaitz motzen kudeaketa
- David Lonsdaleren bi hitzaldi

Bideo hauen osagarri dira irakaskuntza erdi-presentzialerako e-learning oinarrizko materialak.

Vetree prestakuntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisita ezazu

www.vetree.eu

edo jar zaitetz harremanetan VETree proiektuko bazkideekin

Pro Natura

Pro Natura Göteborgen (Suedia) dagoen ikerketarako eta aholkularitzarako enpresa bat da. Pro Natura lanean ari da, batez ere, naturaren kontserbazioarekin loturiko gaietan eta eskarmentu handikoa da lurrezko ekologiar buruzko alor gehienetan.



Inverde Belgikan dago eta adituentzako ingurumen-foro bat da. Naturarekin loturiko gaietan ari da Flandriako Basoetarako eta Naturarako Agentziarentzat; eta baita baso-industriarentzat ere. Proiektuan garatu duen ekimen nagusietako bat izan da proiektuko kideei laguntza ematea material teknikoak prestatzerakoan.



Ancient Tree Forum Erresuma Batuko GKE bat da, 1998an hasi zena zuhaitz zaharren azpian biltzen eta horiei buruz mintzatzeko lagun talde bat bezala. Ancient Tree Forum saiatzeko zuhaitz beteren kudeaketan interesaturik dauden guztiak motibatzen, basoetara irteerak antolatuz eta argitalpenak prestatuz.



Zuhaitz Zaharren Lagunak GKE bat da Espainiaren iparraldeko zuhaitz zaharren eta haiekin loturiko faunaren kontserbazioaz arduratzen dena. Batez ere, Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian, eta Araban aritzen da. Haren lan nagusia da materialak prestatzea da, teknikoak zein dibulgaziozkoak, eta aholkularitza ematea zuhaitz beteren kontserbazioari buruz.



Societatea Progresul Silvic basogintzan, ingurumenaren babesean eta bioaniztasunaren kontserbazioan ari den Errumaniako GKE bat da. Progresul Silvicek Natura 2000 sareko zuhaitz beterenok dituzten bi gune kudeatzen dituzte. Lagundu dute:



Arbolazaintzarako Europako Kontseilua Europa osoko arbolazaintza-elkarteetako ordezkariak biltzen dituen foroa da. AEK Europako Arbolazainen eta Europako Teknikari Arbolazainen ziurtagiriaren alorrean lanean ari da.



Europako Batzordeak proiektu hau finantzatu du. Argitalpen hau autorearen erantzukizun bakarra da eta Batzordea ez da erantzule gerora hemen biltzen den informazioari eman lekiokoen erabileraz.

Iturri hauetan oinarritua:

- Read, H., Veteran trees - a guide to good management, 2000
- Lonsdale, D., Ancient and other veteran trees – further guidance on management, 2014
- Ancient Tree Forum and Woodland Trust, Ancient trees in the UK – securing their future
- VETree proiektuan osatutako prestakuntzarako materiala, 2012-2014
- Vera, F., Grazing Ecology and Forest History, 2000

2014ko urriaren argitaraturik